

# Bertsozalea

Bertsozale Elkartean Berripapera  
Kale Nagusia 70, 20150 VILLABONA komunikazioa@bertsozale.com

119. zenbakia

2010eko ekaina

L.G. 55-614/97

ISSN 1138-4530

www.bertsozale.com

F.C. BAIMENA: 37/126



Gaur Arabako bertsolaritzak dauka kristoren disdira ta horregatik hurbildu gara Gasteiz zaharreko erdira gaurko honetan soberan daude beldurra eta gupida baina ez egon beteranoak garaipenari begira txapela dago eginda eta Aramaioren neurrira.

Andere Arriolabengoa.  
Gasteiz, 2010-V-8  
(Doinua: Mutil koxkor bat)

## 15.000 haur eta gaztetxo, bertsolaritzatik hurbilago

Kurtsoa amaitzen ari da eta berriro ere milaka izan dira Euskal Herri osoko ikastetxeetan bertsolaritza jaso duten ikasleak. Bertsozale Elkartean herrialde guztietan martxan duen egitasmo ezin garrantzitsuago honen inguruan hiru iritzi bildu ditugu.

**Ixiar Eizagirre, Erika Lagoma**  
Bertsozale Elkarteko Transmisio saila

### “Ahalik eta haur gehien zaletu nahi ditugu”

Euskal Herriko gaztetxoek ikastetxeetan bertsolaritza ikasteko aukera izan dute. Nola joan da ikasturtea?

300 ikastetxek eta 15.556 ikaslek hartu dute parte proiektuan. Ikasturte honetan lehen aldiz Errioxara heldu gara, Arabako eskualde guztietan landu da, beraz, bertsolaritza; eta baita Nafarroako Aezkoa eta Erroibar bailareta ere.

**Zer garrantzia du ikastetxeetan bertsolaritza eskolak emateak bertsolaritzaren transmisiorako?**

Gure gizarteko gaztetxo askok eta askok bertsolaritzaren oinarritzko ezagutza bat badutela bermatzen du ikastetxetan bertsolaritza lantzeko. Ahalik eta haur gehien zaletu nahi ditugu ikastetxeetan, hortik bertso-eskolarako pausoa eman dezaten.

**Zeintzuk dira egitasmoaren inguruan dituzuen erronka nagusiak?**

Ikasturte berriarekin batera ikasmaterial berria aterako dugu. Gelatako arbela digitalak ere baliatu nahi ditugu bertso jarriak abesterakoan, testuak, irudiak eta musika lotuz. Irakasleen formazioa eta herriko bertso eskolarekin elkarlana egitea dira aurrera begirako helburu nagusiak.

**Fermin Artola**  
Iruñeko Bernart Etxepare ikastetxeko tutorea

### “Harrigarria da urte bakarrean ikasten dutena”

Zuen ikastetxean nola baloratzen duzue aspaldian egiten den “Bertsolaritza irakaskuntzan” ekimena? Urtero Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Sailak balorazio bat eskatzen digu eta gurean beti oso positiboa izan da. Eta urtero programa zabaltzea eskatzen dugu, gutxienez bi ikasturtez egitea. Baina beti erantzun bera jasotzen dugu Hezkuntzatik, ez dagoela horretarako dirurik.

**Bertsogintza ikasteaz gain, ekimen honek ba al du ikasleentzako onura gehiagorik?**

Harrigarria da urte bakarrean ikasten dutena. Bertsolaritzaren inguruko nozioak eta teknikak ikastea oso inportantea da, baina ez soilik ahoz-kotasun eta inprobisazioa lantzeko. Hizkuntza bera lantzeko oso tresna egokia da eta guk ere horrela hartzen dugu, euskara klase didaktiko bat izango balitz bezala.

**Inguru erdaldundu batean ikasleek nola hartzen dute bertsolaritza klaseetan?**

Oso gauza bitxia da. Kurtso hasieran ikasle gehienentzat oso gauza arrotza da bertsolaritza, eta horregatik oso pozgarria da ikusteak kurtsoa amaitzen denerako gauza direla bat-bateko xume bat egiteko.

**Oihane Perea**  
Arabako Bertsozale Elkarteko irakaslea

### “Oinarri bat zabaldu dugu Euskal Herri osoan”

**Zure esperientzia luzetik, zer nabarmenduko zenuke egitasmoaz?**

Bertsolaritzaren oinarri bat zabaldu dugu Euskal Herri osoan belaunaldiz belaunaldi, haurrek bertso-jolasean parte hartu eta gozatzea lortu dugu. Urteekin konturatu naiz duela hamar urte bertsolaritza landu zuten haurrak, orain koxkortuta bertso eskolara etortzen hasi direla, hain zuzen umetan bertsozaletu eta bertsolaritzari buruzko oinarri bat jaso dutelako. Lanak bere ordaina izaten du.

**Nolako jarrera izaten dute ikasleek?**

Primerakoa. Desiratzen egoten dira bertsolaritza ordua heltzeko, ondo pasatzen dute eta konturatu gabe ikasten dute. Batzuk ikasturte amaieran ohartzen dira ikasitako guztiaz. Beste ikasgaietan garatu edo plazaratzen ez diren gaitasunak martxan jartzen dituzte.

**Erabiltzen duzuen materiala asko aldatu da?**

Gaur egun dagoen materiala esperientzia, formazio eta elkarlanaren ondorioa da. Formazioa elkarrekin egin dugu, materiala hobetzen joan gara urtez urte eta azken urteotako adituen ekarpenekin itxura ederra hartu du. Praktikoak, ezberdina eta eraginkorra dela esango nuke.

Karlos Aizpurua. Bertsozale Elkarteko Ikerkuntza saileko eragilea

# “Lehentasunak ezarri ondotik, ikerketak bideratu, eragin eta gizarteratu behar ditugu”

**Lehen aldiz, Ikeruntza saileko eragilea du Bertsozale Elkartek. Karlos Aizpurua hasi da zeregin horretan eta hemendik aurrera Iker sailak azken urteotan Xenpelar Dokumentazio Zentroak, Iker taldeak, Mintzolak eta beste askok egin duten lana indartuko du.**

**Bazkideren batek duda egiten ahal du, zertarako ikerkuntza?**

Hobetzeko. Bertsolaritzan esparru ezberdinetan egin eta egiten dena biltzea eta ikertzea da kontua. Zertarako? Ba, ikerketaren ondorioen baitan erabaki egokiagoak hartzeko. Horrela bertsolaritzaren alor ezberdinetan ditugun kezka eta beharrei hobeki ihardetsiko diegu, dela transmisioan, dela sustapenean...

**Ikerkuntzak oso kontu urruna, jaso ematen du. Bertsolaritzaren eguneroko dinamikarekin nola uztartzen da?**

Dokumentazioa da ikerkuntzaren oinarria, eta eguneroko dinamikan jasotzen dira modu bateko zein besteago agiriak Xenpelar Dokumentazio Zentroan. Jaso eta eman; Xenpelarrek, baliabide mugatuekin ari bada ere, sekulako zerbitzua ematen baitie EHBeko transmisio eta sustapen sailei, baina baita aldi berean ikerlariari.

Ikerkuntza ez da goi mailakoa bakarrik, doktore tesiak eta abar. Esaterako, ikerkuntza taldeak berriki argitaratu du “Bertso-estrofak izendatzeko irizpideak” lana. Bazen behar bat bertso-estrofak izendatzeko modu definiturik ez baitzen. Iker taldekoak aritu dira buru-belarri horretan: aurrekoen saioak eta ekarpenak ikertzen, pentsatzen, lantzen. Ondorioak atera eta gero proposamen bat argitaratu da. Orain, ikerketari horri esker bada bertso-estrofak izendatzeko erreferentzia estandar bat, eta antzinakoa

baino hobea dena baitezpada, ez baitzen horrelakorik.

Beste adibide bat: UEUko ikastaldia, transmisioaren esparruko ikerketari lotua dena. UEUko ikastaldian bertsoaren alderdi komunikatibo zenbait aztertuko dira, ondorioak ere aterako dira, eta gero bakoitzak bere jardunean (bertsogintza, irakaskuntza, kazetaritza, elkartegintza...) aplikatzen ahalko ditu dabilen horretan hobetzeko, kasu horretan hobeki komunikatzeko.

Generoari buruzko ikerketak ere ari dira egiten ikerlariak. Ikerlari horiek gurekin harremanetan dira. Izan ere, ikerketa horien ondorioek transmisioari zuzenean eragingo diote -ikasmaterialaren sorkuntzan, bertso eskolen pedagogian...-, baina baita sustapenari ere -gai-jartzailetza, epailetza, txapelketen zentzuari...-edo Bertsozale Elkarteko lan molde berari ere. Ikerketa horien ondorioei esker generoaren afera hobeki kudeatuko dugu bertsolaritzan.

Doinutegia da eguneroko dinamikari lotutako beste elementu bat. Sarri heldu biltzen ditugu doinu berriak. Biltzeaz gain, sailkatu eta prestatu behar izaten dira kanpora hedatzeko, transmisioa ikasmaterialerako, hedabideetarako, partikularrenzat ...

**Laburki bada ere, zehazten ahal dituzu zeintzuk dira ikerkuntza saileko eginbehar nagusiak?**

Ikerkuntza sailak lehenik eta behin aztertu beharko luke bertsolaritzan zer ikertu den -iker mapa- eta zein-



tzuk diren bertsolaritzak dituen ikerketa beharrak. Hori jakinik, lehentasunak ezarri ondotik, ikerketak bideratu, eragin eta gizarteratzeke.

Horrek eskatzen du gogoetarako eta Xenpelar Dokumentazio Zentroarekin zein beste sailekin harremanetarako tarte handi samarra, une honetan ez duguna -egun erdiko eragiletza da ikerkuntzakoa-, eguneroak jaten baitigu denbora.

**Eta epe laburrean dituzuen ekimenak zeintzuk dira?**

Iker mapa zehazten segitzea, UEUko ikastaldia, Ahoa bete hots uztailako jardunaldiak, Bertsogunea mahai inguruak, EHBEn 25. urteurrenarako dokumentu bilketa eta ekoizpena, 2011ko otsaileko Bertsolamintza, 2012ko kulturarteko topaketa, doinutegiaren eguneraketa ... Ez dugu nekatzeko betarik.

**Mintzolarekin harreman estua izan beharko du ikerkuntzak. Nolako da zuen arteko elkarlana?**

Ikerkuntza eragileak parte hartzen du Mintzolako batzorde zientifikoa. Gutxienez hamabostean behin biltzen da batzorde zientifikoa. Iker batzordean sortzen diren ikerkuntza proiektu batzuk, ekimenak eta abar batzorde horretan aurkeztu, ondu eta gauzatzen dira elkarlanean. Iker eragileak zubi lana egiten du ikerkuntza batzordearen -eta zenbaitetan beste batzordeen- eta Mintzolarekin artean. Epe laburrera esku artean ditugun ekimenak Ahoa bete hots eta Bertsogunea dira.

Horrez gain, Xenpelar Dokumentazio Zentroko ordezkaria, aldi berean ikerkuntza batzorde kide dena, harremanetan da Mintzolako zuzendariarekin, Mintzolarekin Ahozkoaren dokumentazio egitasmoa diseinatzen.



## Interneteko plaza bertsoz jantziz

**B**izkaiko Bertsolari Txapelketaren harira, interneteko plaza ere bertsoz jantzi gura dau Bizkaiko Bertsozale Elkartek, [www.bizkaikotxapelketa.biz](http://www.bizkaikotxapelketa.biz) webguneari esker. Eta hasi da daborduko, pintzeladaz pintzelada, Eskualdeetako Txapelketen barri emonaz. Eten barik eguneratuten doan informazioa emonaz.

Dana ez da txapelketea halandabe, webgunea Bizkaiko bertsolaritzaren plaza izatea gura dau-eta elkarrekin. Besteak beste, bertso-eskolek egindako bideoak, eskualdeetan antolatu dabean kanporaketa zein girotze saioen inguruko kronikak zein bertsolaritzagaz lotutako ekitaldien inguruko barriak topaiko dozue bertan eta zelan ez, bertsozaleen bideo, argazki etabarrak plazaratutea da asmoa. Horretarako nahikoa da komunikazioa@bizkaikotxapelketa.biz helbidera bidaldutea.

Telebista propioa be badau webguneak, Kopla Barik telebista, hain zuzen be. Momentuz saioetako bertso aukeraketak, saio osteko balorazioak zein eskualdeetako bertso-eskolek bialdutako bideoak dagoz ikusgai bertan.

Txapelketa urteetan zein txapelketarik ez dagoanean egongo da martxan webgunea. Izan be, bertso-eskola, irakasle zein norbanakoantzat lagungarri izan leiken datubase garrantzitsu bihurtu gura dau elkarrekin.

Eta zelan ez, sare sozialetan ere badau lekua txapelketeak. Facebook-en martxan dago Bizkaiko Eskualdeetako Bertsolari Txapelketak orria eta twitter-en ere lehen pausoak emoten dabil txapelketea bizkaikoplazan izenpean.

**Bizkaiko Bertsozale Elkartea**

Joxemari Agirretxe  
PORROTX**PUNTUA ] ARRITA****Koloretako mundua**

Nortasuna lantzeko aukera paregabea eskaintzen du bertsolaritzak. Arrazoi duzu Arantzazu! Eta bertsolaritzarekin batera kantagintzak, antzerkiak, dantzak... curriculum ofizialetan geroz eta baztertuago geratzen ari diren diziplina horiek guztiak dira garrantzitsuak pertsona bakoitzari daukan onena ateratzeko. Baina ez dugu gora begira geratu behar, administrazioetik zer esan edo aginduko digutenaren zain.

Koloretako mundua amestu eta nahi dugula diogu sudurgorriok, animalia eta landare askokin, herri, kultura eta hizkuntza anitzekin, elkarrekin eta elkartasunean. Eta Euskal Herritik gure kolorea emanez osatu behar dugu ostadar hori. Etxean, eskolan, herrian, auzolanean, pintzela eskutan hartu eta denoi dagokigu margoa osatzea.

Batzuetan elkarri bizkarra emanda aritzen gara, eskola orduak eskolakoentzat, etxeok etxeokentzat, herria ere aparte, elkarri ardurak leporatuz, bakoitza bere golkoari begira. Haurrak askeak, euskaldunak, arduratsuak, langileak, sentiberak, alaiak, tristurak eta pozak partekatzen dituztenak nahi ditugu, urteak zenbatu baino abenturak bizitzen dituztenak. Baina nolakoa da gure praktika? Zein ispilu eskaintzen diegu helduok?

Bertsolaritzatik ekarpen ederra ari zaigu egiten azken urte luzeotan. Herrigintzan, oinarririk, talde-lanean, teknikatik haratago, bizitza ulertu eta bizitzeko ikuspegi berri bat eskainiz. Eta hari begira ari gara antzerkigintzatik ere eta harekin batera egin nahi dugu bidean aurrera. Horren harira, ekainaren 6an sortu da Euskal Herriko Antzerki Zaleon Elkarte (EHAZE), Villabonako Mintzolan burutu den batzarrean.

Helburu garrantzitsuenetako bat zaleatasuna ereitea izango da, txikitatik hasi eta adin mugarik gabe. Haurrak baitira etorkizuna eta helduak eredu. Bertsolaritzak bezala, guk ere gure ekarpena egin nahi dugu, teknikatik haratago... herrigintzan eta eskolan. Eta eskolaz ari garela, kontatuko al zeniguke zertan eta nola ari zaren lanean Unai Muñoa?

**KOPLAK****UDAKO BERTSO BARNETEGIA BIZKAIAN**

Ikasturteari behar dan bezalako amaiera emateko, bertso barnetegia antolatu du aurten ere Bizkaiko Bertsozale Elkarteak, Bizkaiko Ikastolen Elkartearekin batera. Bertan, bertsotan naturaz goatzeko aukera paregabea izango dute ikasleek.

**Lekua:** Gorozikako aterpetxea.

**Egunak:** Ekainaren 27tik ekainaren 30era.

**Eraman beharrekoak:** Lo zakua, bainujantzia, eguzkitarako krema, linterna eta Osakidetzako txartela.

Informazio gehiagorako edo izena emateko: 94 681 27 11 (Bizkaiko Bertsozale Elkarte) / 647 910 611 (Arkaitz).

**BERTSOZALEA EUSKARRI DIGITALEAN JASO NAHI?**

Berripapera euskarrri digitalean jaso nahi baduzu bidali mezu bat komunikazioa@bertsozale.com helbidera zure izen-abizenak eta berripapera jaso nahi duzun helbide elektronikoa zehaztuz. Bi eratara jaso nahi izanez gero, posta arruntez eta elektronikoz, adierazi mesedez eskaria egiterakoan.

**POTO-FINIXA****Bertsolaria, beti argia piztuta**